



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

2022ko deialdia Inprimaki arautua

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.

Durango, 2022-09-14.

Agur t'erdi.

Aurkezpen eskutitz honen bitartez, Eusko Ikaskuntzaren 2023 urteko Manuel Lekuona Sarirako MARISA BARRENA LARRUZZEA emakume ekintzailearen hautagaitza igortzen dut, proposatzeko arrazoiak ondoko hauek direlarik:

Emakume ekintzailea eta erreferentea euskaran, feminismoan eta euskal kulturaren, bere militantzia eta konpromisoari esker etengabeko lana egin duena herrigintzan.

Euskara arloan, eta erakunde eta elkarte desberdinetan, irakasle izateaz gain, koordinatzaile, aztertzaile, materialgile eta teknikari ere jardun da: esaterako Ikastolen Elkartean, HABEn, IRALEN, Eusko Jaurlaritzan eta hainbat euskaltegitan.

Horrez gain, etengabeko zubi-lanak egin ditu kolektibo eta proiektu ugarian, berauen bultzatzaile sutsua izanik: besteak beste, alfabetatze eta euskalduntze kontuetan, euskal dantza arloan, feminismoan, euskal literatura munduan, errefuxiatuen gaitan...

Bere lan eta iritziaren zabalkunderako erabili ohi dituen bideak prentsa, aldizkariak, irratia, sare sozialak, Wikipedia edota hitzaldiak izan dira.

Eskatutako dokumentazio eta bete beharrekoak ere bidaltzen dizkizuet:

- inprimakia
- curriculum
- pare bat argazkia

Osatzeko beste zerbait behar izanez gero eskatuko duzuelakoan, agurtzen zaituztet.

Adeitasunez

Estibalitz

González



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

3. PROPOSAMENAREN ARRAZIOIAK

3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

INPRIMAKO HONEKIN BATERA BIDALI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Hautagaiaren argazkia
- ✓ Beste (egon ezker)

Tokia, data eta sinadura

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.

CURRICULUM VITAE

MARISA BARRENA LARRUZEA

IKASKETAK

- Merkataritza alorrekoak
- Magisteritza
- Psikopedagogia

LAN IBILBIDEA

- Zornotzako EKIN kooperatiba-fabrian, administrari
- Ikastolen Elkartean, Bizkaiko idazkari nagusi
- Arrasateko Udal euskaltegian euskara irakasle
- Bilboko HABE euskaltegian irakasle eta material didaktikoaren sortzaile
- Euskararen auto-ikasketarako HEZINET materialaren bultzatzaile
- IRALEn, irakasleen irakasle
- EGA frogako aztertzaile
- Zornotzako Barnetegiko zuzendari
- Eusko Jaurlaritzan Euskara saileko teknikari

EKINTZAILE LANAK

- 1969an, borondatezko euskara-eskoletan irakasle
- 1972 urtean, Durangon egindako alfabetatze eta euskalduntze kanpainetako partaide
- 1990etik aurrera, Durangoko KRISKITIN dantza-taldeko sustatzaile, kultura artekotasuna eta parekidetasuna bultzatzea helburu
- 2005ean, Durangoko ANDEREAk Elkarteko kide sortzaile
- 2014tik, Durangaldeko HITZEZ ETA AHOTSEZ ekimen literarioaren sortzaile eta sustatzaile
- 2015etik aurrera, MINTZANET programako partaide, euskara online eta doan praktikatzea xede
- 2019az geroztik, Durangaldeko WIKIEMAKUMEOK proiektuaren partaide eta bultzatzaile, euskarazko Wikipedian emakumeen biografiak sortzeko eta euskaratzeko asmoz

- Durangaldeko, Arratia eta Oiartzungo Wikiemakumeok taldeen sortzaile eta sustatzaile
- Segura Irratiko kolaboratzaile, hamabostean behin efemerideari erreparatu, emakumeak bistaratzea helburu
- Egunero sare sozialen bidez emakumeen efemerideak bistaratzearen arduradun
- MUGIMENDU FEMINISTAKO kide
- KILI-KILI aldizkariko zuzentzaile
- ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK DURANGO plataformako kide
- ERRIGORA egitasmoko Durangoko koordinatzaile
- Euskal Wikipedia eta Durangaldeko Wikiemakumeok taldeen arteko bitartekari
- Eskola eta institutoetan hizlari, belaunaldi gazteen artean Euskal Herriko emakume erreferenteak bistaratzea helburu

ARGITALPENAK

- 2009an, Isabel Lertxundi Barañanoren biografia idatzi zuen BIDE GILEAK sailean
- Wikiemakumeok Durangaldea egitasmoan, genero arrakala murrizteko helburuarekin, 2.000 emakumeren biografien edizioan koordinatzaile jardun du
- Ohiko kolaboratzailea da, iritzi-zutabeak idazten ANBOTO aldizkaria eta Durangon argitalpen digitalean

SARIAK

- 2017an, Bidelagun Onenaren saria, Mintzanet Egunean
- 2020an, Euskarazko Wikipedian emakumeen presentzia areagotzeko lehiaketaren irabazlea